

## **2025EKO OTSAILAREN 24KO** **TOKIKO GOBERNU BATZARRA**

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hogeita bosteko otsailaren hogeita lauan, arratsaldeko bostetan, Lazkaoko Udalaren Tokiko Gobernu Batzarra bildu da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Kepa Zubiarrain Erauskin Alkatearen lehendakaritzapean. Bertaraturako zinegotziak honako hauek dira: Aitor Altuna Oiarbide, Joxemai Ormazabal Sukia eta Maialen Amundarain Irizar.

Amagoia Naldaiz Mingo zinegotziak bere ezin etorria adierazi du.

Idazkari lanetan Idoia Garmendia Callejak dihardu.

### **I.- AURREKO AKTA.-**

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren, bertaraturakoen onespenera aurkeztu da 2025eko otsailaren 10ean egindako ohiko bilkurako akta, eta idatzita dagoen moduan onartu da.

### **II.- FAKTURAK.-**

Ondoren, Udaletxera azkenaldi honetan etorri diren fakturak aztertu dira.

Fakturak aztertu ondoren, 2024ko ekitaldiko aurrekontuari dagokion 108 zenbakidun fakturen zerrenda, BERREHUN ETA BERROGEITA HAMAHIRU euro ETA BI zentimokoa (253,02 €), eta 2025eko ekitaldiko aurrekontuari dagokion 9 zenbakidun zerrenda, EHUN ETA HOGEITA BAT MILA BERREHUN ETA HAMAZAZPI euro ETA HOGEITA HIRU zentimokoa (121.217,23 €), bere espedientean daudenak, onartzea erabaki da.

### **III.- UDAL ZERGA ETA TASEN ARLOAN DIRULAGUNTZAK EMATEKO DEIALDIA 2025 URTERAKO.-**

Norgehiagoka-erregimenean, gizarte ekintza eta osasun arloko dirulaguntzen artean, udal zerga eta tasen arloan dirulaguntzak emateko 2025erako deialdia aurkeztu da bere onarpenerako.

Deialdiak honela dio:

#### **“UDAL ZERGA ETA TASEN ARLOAN DIRU LAGUNTZAK EMATEKO DEIALDIA 2025 URTERAKO**

*1. artikulua. Xedea.*

Ordenantza honen helburua zera da:

- 1.1. Ohiko etxebizitzako ondasun higiezinaren gaineko zerga (OHGZ), ura, estolderia, nahiz zabor-tasak sortzen duten karga ekonomikoa murrizteko edota deuseztatzeke duen laguntzen udal-politika garatu eta gauzatzea.
- 1.2. Ezintasuna edo mendekotasuna duten pertsonen, irisgarritasun-obrak egiten direnean instalazio eta obren gaineko zerga dela-eta, ordaindu beharreko zenbatekoari laguntza ematea.
- 1.3. Familia ugariak trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga dela-eta ordaindu beharreko zenbatekoari laguntza ematea.
- 1.4. Joxemiel Barandiaran udal kiroldegiko bazkietza eta jarduerengatik ordaindu beharreko tasak ordaintzeko laguntzak ematea.
- 1.5. Kultura eta denbora libreko ikastaroengatik ordaindu beharreko tasak ordaintzeko laguntzak ematea.

## *2. artikulua. Partida eta aurrekontuko diru-hornidura.*

Deialdi honetan emango diren dirulaguntzen zenbatekoa guztira 21.000 eurokoa izango da, eta hori 2025. urterako Lazkaoko Udalaren Aurrekontu Orokorren honako partidatik egingo da:

1.480.03.231.00 zenbakidun partida, « Gizarte Zerbitzuak: zerga laguntzak » .

## *3. artikulua. Ezargarri den araudia.*

Diru laguntzen 38/2003 Lege Orokorra, azaroaren 17koa; Dirulaguntzen Araudi Orokorra, 887/2006 Errege Dekretuak onartua, uztailaren 21ekoa; Lazkaoko Udalak dirulaguntzak emateko ordenantza orokor arautzailea, udal osoko bilkurak 2017ko otsailaren 28an onartutakoa; eta Lazkaon Udal zerga eta tasen arloan laguntzak emateari buruzko berariazko oinarriak, Udalaren Osoko Bilkurak 2023ko abenduaren 14an onartutakoak.

## *4. artikulua. Aurkeztu beharreko agiriak eta eskaerak aurkezteko epea.*

4.1. Dokumentazioa:

4.1.1. Laguntza hauen helburu diren 1.1, 1.2 eta 1.3 helburuetan izendatutako zerga eta tasetarako:

- a) Eskatzailearen eta bizikidetzaren unitateko gainerako partaideen NAREN fotokopiak.
- b) Bizikidetzaren unitatea osatzen duten partaide guztiek dagokion ekitaldian jasotako hileko diru-sarrera garbien ziurtagiriak (10-T, nominak, pentsio-agiriak, etab.).
- c) LANBIDEK/SEPEK emandako langabezia egoeraren ziurtagiria eta kasua bada jasotako hileko prestazioen ziurtagiria edota prestaziorik jasotzen ez denarena.

- d) Ikasleen kasuan, ikasten ari direla egiaztatzen duen frogagiria.
- e) Bizikidetzaren unitateak duen ondareari buruzko aitortzen zinegina. Eredua laguntza-eskaerarekin batera emango da.
- f) Aurreko urteko tasaren ordainagiria.
- g) Eskatzaileari eraikineko fakturan dagokion kontsumo-zatiaren agiria. Eredua eskaerarekin batera emango da.
- h) Bizikidetzaren unitateak duen kapitalaren frogagiria edo ziurtagiria.
- i) Ordainagiriaren zenbatekoa ordainduko den kontuaren 20 zifrako zenbakia.
- j) Eskatzaileak sinatutako dokumentua, bertan, Udalari ondasun-ziurtagiria eskatzeko baimena emanez eta azken bost urteetan ez eskatzailearen izenean eta ezta elkarrekin bizi direnen unitatekoen izenean ere ondasun-eskualdaketarik ez egin izana ziurtatuz.

4.1.2. Laguntza hauen helburu diren 1.4 eta 1.5 helburuetan izendatutako zerga eta tasetarako:

- a) Eskatzailearen eta bizikidetzaren unitateko gainerako partaideen NAREN fotokopiak.
- b) Bizikidetzaren unitatea osatzen duten partaide guztiek eskaera datan azken lau hilabeteetan (eskaera hilabetea barne) jasotako hileko diru-sarreraren garbieraren ziurtagiriak (nominak, pentsio-agiriak, etab.).
- c) LANBIDEK/SEPEK emandako langabezia egoeraren ziurtagiria eta kasu bada jasotako hileko prestazioen ziurtagiria edota prestaziorik jasotzen ez denarena.
- d) Ikasleen kasuan, ikasten ari direla egiaztatzen duen frogagiria.
- e) Bizikidetzaren unitateak duen ondareari buruzko aitortzen zinegina. Eredua laguntza-eskaerarekin batera emango da.
- f) Bizikidetzaren unitateak duen kapitalaren frogagiria edo ziurtagiria.
- g) Ordainagiriaren zenbatekoa ordainduko den kontuaren 20 zifrako zenbakia.
- h) Eskatzaileak sinatutako dokumentua, bertan, Udalari ondasun-ziurtagiria eskatzeko baimena emanez eta azken bost urteetan ez eskatzailearen izenean eta ezta bizikidetzaren unitateko kideen izenean ere ondasun-eskualdaketarik ez egin izana ziurtatuz.
- i) Eskatzaileak sinatutako dokumentua, bertan, elkarrekin bizi diren unitateko edozeinen egoera ekonomikoa aldatzen bada honen berri Udalari jakin araziko diela ziurtatuz.

39/2015 Legearen 28. Artikuluan eta 2016/679 (EB) Erregelamenduaren 6.1 artikuluan ezarritakoaren arabera, Udalak zuzenean kontsultatuko du, pertsona edo erakunde inte-

resdunak horren aurka egiten ez badu behintzat, NISAE elkarreragingarritasun-nodoaren bidez, laguntza jasotzeko baldintzak betetzen direla egiaztatzeko. Zehazki, datu hauek kontsultatuko dira:

- Errenta maila (PFEZ)
- Ondare maila
- Kontu maila
- Azken 4 urtetako OHGZ

4.2. Eskariak aurkezteko epea:

4.2.1. Laguntza hauen helburu diren 1.1, 1.2 eta 1.3 helburuetan izendatutako zerga eta tasetarako:

2025eko martxoaren 10etik 28ra.

4.2.2. Laguntza hauen helburu diren 1.4 eta 1.5 helburuetan izendatutako zerga eta tasetarako:

2025ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra.”

Hau honela, gaia bozketan jarri da eta Tokiko Gobernu Batzarrak, aho batez, udal zerga eta tasen arloan dirulaguntzak emateko 2025erako deialdia onartzea erabaki du.

#### IV.- 2023KO ONDASUN HIGIEZINEN GAINEKO ZERGAN ALOKAIUARENGATIKO HOBARIA.-

Tokiko Gobernu Batzordeak 2024ko irailaren 2an egin zuen bilkuran, 2023ko Ondasun Higiezin gainekeko Zergan %50eko hobaria aplikatzea onartu zuen etxebizitza alokatuta duten eta horretarako baldintza guztiak betetzen dituzten pertsonen, horretarako irekitako epean dagokion eskaera egin ondoren.

Gaurko batzordean aurkeztu den proposamenean, beste lagun bati EHUN ETA HIRU euro eta LAUROGEITA BEDERATZI zentimo (103,89 €) hobaritzea proposatu da, bakoitzari bere espedientean jasotako zenbatekoaren arabera.

Tokiko Gobernu Batzarrak, gaia aztertu ondoren, hobari hau onartzea erabaki du.

Hobari hauek sarreraren aurrekontuko 2 112.02.000.00 partida gutxituz egingo da.

#### V.- GIZARTE ZERBITZUETAKO LAGUNTZAK.-

Gizarte Zerbitzuetako Batzordeak aurkeztutako proposamenak aztertu ondoren, Gobernu Batzordeak honako erabaki hauek hartu ditu:

Etxeko Laguntza Zerbitzua.-

- 21-11-04 zenbakidun esped.: egunean 3 ordutik 4 ordura pasatzea, astelehenetik larunbatera, urtarrilaren 23tik aurrera, onuradunak laguntza handiagoa behar duelako. Onuradunaren ekarpena % 61ekoa izatetik % 35ekoa izatera pasako da.
- 23-11-12 zenbakidun esped.: otsailaren 11tik aurrera etxeko laguntza zerbitzua handitzea astean 6 ordutik 10 ordura, erabiltzailearen osasun egoera okertu delako. Onuradunaren ekarpena % 100ekoa da.
- 25-11-01 zenbakidun esped.: urtarrilaren 23tik alta ematea astelehenetik ostiralera 2 orduz eta larubabetan ordubetez, laguntza pertsonalerako. Onuradunaren ekarpena % 2koa izango da.

Gizarte Larrialdietarako laguntzak.-

- 18-01-003 zenbakidun esped.: etxebizitzaren mantentze gastuetarako hilean 92,50 €-ko dirulaguntza ematea urtarriletik abendura. Eman daitekeenaren % 62 da.
- 23-01-001 zenbakidun esped.: etxebizitzaren mantentze gastuetarako hilean 89,43 €-ko dirulaguntza ematea urtarriletik abendura. Eman daitekeenaren % 60 da.
- 24-01-002 zenbakidun esped.: etxeko mantentze gastuetarako hilean 93 €-ko dirulaguntza ematea urtarriletik abendura. Eman daitekeenaren % 62 da.
- 24-01-003 zenbakidun esped.: etxeko mantentze gastuetarako hilean 96 €-ko dirulaguntza ematea urtarriletik abendura. Eman daitekeenaren % 64 da.

Familia laguntzak.-

- 25-15-01 zenbakidun esped.: hasierako ikerketa eta ebaluazio txostena egitea. Horretarako aurrekontua 1.140 €-koa da.

Gizakia Helburura joateko garraiorako dirulaguntzak.-

- 25-14-02 zenbakidun esped.: urtarrilean garraiorako 300 €-ko dirulaguntza ematea, Gizakia Helburura egiten dituen garraio gastuak ordaintzeko.

Merkatariei Sormen lehiaketako saridunen bonoengatik.-

Lazkaoko Udalak 2024 urtean antolatutako Sormen lehiaketa dela eta, saridunek herriko dendetan gauzaturiko erosketen fakturak ekarri dituzte Udalera eta ondorioz dagoen merkatarietara lehen ordainketa egitea:

MERKATARIA	ZENBATEKOA
Gerriko liburudenda	11,35 €
	66,00 €
GUZTIRA (2. saria A kategoria)	77,35 €

MERKATARIA	ZENBATEKOA
Nerea jatetxea	66,00 €
Hirutxoko kafetegia	29,35 €
Bika kafetegia	8,40 €
GUZTIRA (1. saria B kategoria)	103,75 €

MERKATARIA	ZENBATEKOA
Gerriko liburudenda	22,50 €
Leire – Sormenetik Haratago	50,00 €
GUZTIRA (2. saria B kategoria)	72,50 €

#### VI.- EUSKARA ARLOKO DIRULAGUNTZAK.-

Euskara batzordeak egindako proposamenen aurrean, Tokiko Gobernu Batzarrak, aho batez, honako erabaki hauek hartu ditu:

##### Euskara ikasten ari direnei.-

2024/2025 ikasturtean euskara ikasten bukatu duten ikasleei dirulaguntzaren ordainketa egitea baldintzak bete dituztelako. Ikasle bakarra izan da eta emango zaion kopurua 322 €-koa da.

Ordainketa partida honetatik egingo da: 2025eko aurrekontuaren 1 480.01.335.00 partidatik.

#### VII.- LANDA EREMU ARLOKO DIRULAGUNTZAK.-

Landa Eremuko batzordetik baserritar ekoizleei dirulaguntzak emateko egindako proposamenaren aurrean, Tokiko Gobernu batzarrak, honako erabaki hauek hartu ditu:

##### Antsoategi Elkarteari.-

2025eko urtarrilaren 12an ospatu zen Astotxo egunaren baitan, Enkarterrietako asotoaren arraza erakusketa eta lehiaketa burutu zen. Ospakizun honen antolakuntza lanei aurre egiteko, Antsoategi elkarteari falta den 4.000 €-ko dirulaguntza ematea.

Ordainketa 481.08.334.00 partidatik egingo da.

#### VIII.- GALDERA ETA ERREGUAK.-

Ez da galderarik egon.

IX.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jo du, arratsaldeko bostak eta hogeita bost direnean eta nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dut.